

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA
FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

6892

74/2011 FORU DEKRETUA, azaroaren 29ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortzen duena.

Azken urteotan, Arabako Foru Aldundia ahaleginak egiten ari da Internet erabilia bere zerbitzuak hiritarrei gerturatzeko. Horrekin lotuta, joan den maiatzean egoitza elektronikoa (aldundidigitala) abian jarri zuen.

Egoitza elektronikoa martxan jarri denetik, ordura arte eskaintzen ziren izapide telematikoen segurtasuna eta bermeak areagotu dira, bai eta hori eusten zuen azpiegitura teknologikoa berritu ere. Horiek horrela, azken hilabeteotan telematikoki izapidetu ahal diren zerbitzuak ugaritu egin dira, eta etorkizunean ere bide beretik jarraituko da.

Egoitza sortzeko arautegian, besteak beste, egoitzan sartzeko eta identifikatzeko erabil daitezkeen mekanismoak arautu dira. Horren harira, arautegi horren xedapen iragankorrean adierazitakoaren arabera, eragiketa gakoak 2011ko abenduaren 31 arte izango dira erabilgarri. Egun horretatik aurrera onartutako ziurtagiri elektronikoen bidez baino ezin izango da sartu eta identifikatu egoitza elektronikoa.

Orain, eragiketa gakoek epeak eta indarraldiaren baldintzak aldatzea komeni da, egoitza elektronikoa erabilera errazteko eta sustatzeko xedez.

Horregatik, Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Apirilaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren 26/2011 Foru Dekretuaren xedapen iragankorra aldatzea. Aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

“Foru dekretu hau indarrean sartu aurretik baliabide telematikoa bidez eskainitako zerbitzuak, aurrerantzean ere, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez eskainiko dira, ordura arte indarrean izan diren termino eta baldintza beretan.

Egoitza elektronikoa alta emateko, identifikatzeko eta sartzeko, lehenetsuna emango zaio unean-unean onartutako ziurtagiri elektronikoen erabilerrari; pertsona fisikoaren kasuan 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta pertsona juridikoen kasuan 2012ko irailaren 1etik aurrera.

Data horietatik aurrera, salbuespen gisa, erabiltzaile berriei bertaratuta altan emateko eragiketak egin ahalko dira, bai eta iraupen mugatuko behin-behineko eragiketa gakoak ematekoak ere.”

Bigarrena.- Foru dekretu hau argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 29a.- Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua, LUIS VIANA APRAIZ.- Zerbitzu Orokorren zuzendaria, LUIS MURO GARCÍA.

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA
Y ADMINISTRACIÓN FORAL

6892

DECRETO FORAL 74/2011, del Consejo de Diputados de 29 de noviembre, que modifica el Decreto Foral 26/2011, de 5 de abril, de creación de la sede electrónica de esta Diputación Foral.

Asociado a los esfuerzos que en los últimos años la Diputación Foral de Álava ha realizado para impulsar Internet como un medio para acercar sus servicios a la ciudadanía, en mayo de este año puso en funcionamiento su sede electrónica (diputaciondigital).

La puesta en marcha de la sede electrónica ha supuesto un incremento en la seguridad y garantías en los trámites telemáticos que hasta ese momento se ofrecían, así como una renovación de la infraestructura tecnológica que la soportaba, lo que ha permitido incrementar en los últimos meses el número de servicios tramitables telemáticamente y seguir haciéndolo en el futuro.

Uno de los aspectos que regula la normativa de creación de la sede son los mecanismos de identificación y acceso a la misma que pueden utilizarse. A este respecto, su Disposición Transitoria indica que el uso de claves operativas será válido hasta el 31 de diciembre de 2011 y que, a partir de dicha fecha, el acceso e identificación en la sede electrónica se realizarán, exclusivamente, mediante los certificados electrónicos admitidos.

En este momento, por razones de oportunidad y conveniencia, y con el objetivo de facilitar y potenciar la utilización de la sede electrónica, procede modificar los plazos y condiciones de vigencia de dichas claves operativas.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Promoción Económica y Administración Foral y previa deliberación del Consejo de Diputados reunido en el día de la fecha,

DISPONGO

Primero.- Modificar la Disposición Transitoria del Decreto Foral 26/2011, del Consejo de Diputados de 5 de abril, que quedará redactada como sigue:

“Los servicios prestados de forma telemática antes de la entrada en vigor del presente Decreto Foral, seguirán prestándose a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Álava en los mismos términos y condiciones que hasta ese momento.

Se fija el uso de certificados electrónicos admitidos en cada momento como método prioritario de alta, identificación y acceso a la sede electrónica, a partir del 1 de enero de 2012 para las personas físicas y del 1 de septiembre de 2012 para las jurídicas.

A partir de dichas fechas, excepcionalmente podrán realizarse operaciones de altas presenciales de nuevos usuarios y emisión de claves operativas provisionales de duración limitada”.

Segundo.- El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación.

Vitoria-Gasteiz, a 29 de noviembre de 2011.- El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- El diputado de Promoción Económica y Administración Foral, LUIS VIANA APRAIZ.- El director de Servicios Generales, LUIS MURO GARCÍA.